

### **IKASLEENTZAKO INFORMAZIO ORRIA (2019-2020 IKASTURTEA)**

VITAL Fundazioak, Gasteizko IKArekin elkarlanean, 10.000 € emango du, **18-25 urte bitarteko gazteek** euskara ikasteko BEKAK finantzatzeko asmoz, eta, horretarako, matrikularen kostuaren zati bat ordainduko die ikasleei. Proiektu honen helburuak honakoak dira:

- Arabako gazteei formazioa hobea eta osatuagoa lortzen lagundu.
- Lan munduan sartu ahal izateko, tresna garrantzitsua eskaini.
- Gazteen arteko formazio aldeak murriztu.
- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatu.
- Euskal kultura ezagutarazi.

Hori guztia lortu ahal izateko, honako ikastaro hauek bultzatu nahi dituzte VITAL Fundazioak eta Gasteizko IKAK, helburu horietara hobekien egokitzen direlakoan:

- Euskaltegian euskara maila handitzeko eta akreditatzeko 5 eta 3 orduko ikastaroak goizetan, 2019ko urritik 2020ko ekainera bitartean.
- Euskaltegian euskara maila handitzeko eta akreditatzeko 5 orduko ikastaroak goizetan eta 4 orduko ikastaroak arratsaldeetan, 2019ko urritik 2020ko otsail edo martxo bitartean.

Beken diru kopuruak hauek izango dira:

ERRITMOA	MAILA	PREZIOA	BEKA	IKASLEAREN KUOTA*
<b>5 ordu urria-ekaina</b> Gasteiz euskaltegian	A-B-C	1.732 €	500 €	1.232 €
<b>3 ordu urria-ekaina</b> Zaldiaran euskaltegian	A-B-C	1.055 €	300 €	755 €
<b>5 ordu urria-otsaila</b> Gasteiz euskaltegian	A-B-C	1.002 €	275 €	727 €
<b>4 ordu urria-otsaila</b> Zaldiaran euskaltegian	A2-B1	641 €	200 €	441 €
	B2	788 €	220 €	568 €
	C1	1.062 €	300 €	762 €

\* AFaren deskontua, hala badagokio, kontuan hartu gabe

#### **Ikasleek bete beharreko baldintzak:**

- 18-25 urte bitartekoa izatea (1994-2001 bitartean jaioak).
- Beka-eskaria bete eta matrikula-orriekin eta ordainagiriarekin batera entregatu euskaltegian.
- Matrikula egitea euskaltegiak jarritako epearen barruan, hau da, irailaren 2tik 20ra (matrikula-orriak beteta eta ordainagiria euskaltegietakoko bulegoan ematea).
- Konpromiso-idazkia sinatzea. Bertan ikastaroa aprobetxamendu onaz amaitu eta % 75eko asistentzia beteko duelako konpromisoa hartuko du.

### **Konpromiso idazkia:**

- Ikasle bekadunak ikastaroa aprobetxatu eta % 75eko asistentzia edukiko duelako konpromisoa hartu behar du.
- Era berean, ikasle bekadunak Gasteizko IKARI baimena emango dio haren ikastaroaren jarraipen didaktikoa VITAL Fundazioari emateko.
- Azkenik, ikasle bekadunak "konpromiso idazkian" hitzartutako betekizunak bete ezean, VITAL Fundazioari esker deskontatutako diru kopurua itzuli behar du, eta horretarako transferentzia geroratu bat onartu beharko du.

### **Prozedura:**

Irailaren 23tik aurrera eskaera guztiak aztertu eta, ezarritako irizpideen arabera, VITAL Fundazioak eta Gasteizko IKAK erabakiko dute nor izango diren onuradunak. Era berean, 12 ikasle erreserban geldituko dira, gerta daitezkeen bajak betetzeko.

Irailaren 31 baino lehen, bekadunei, erreserban geldituko direnei eta beka ukatu zaienei emango zaie horren guztiaren berri.

### **Bekak banatzeko irizpideak:**

1. IRIZPIDEA: Ikastaroaren iraupena eta trinkotasuna kontuan hartu:
  1. AUKERA: 2019ko urritik 2020ko ekainera bitarteko 5 orduko ikastaroak hautatzea.
  2. AUKERA: 2019ko urritik 2020ko ekainera bitarteko 3 orduko ikastaroak hautatzea.
  3. AUKERA: 2019ko urritik 2020ko otsailera arteko 5 orduko ikastaroak hautatzea.
  4. AUKERA: 2019ko urritik 2020ko otsailera arteko 4 orduko ikastaroak hautatzea.
  5. AUKERA: 2019ko urritik 2020ko ekainera bitarteko 2 orduko ikastaroa hautatzea (beketarako dirua geratuko balitz bakarrik).
2. IRIZPIDEA: Euskara maila apalenekoak lehenetsi.
3. IRIZPIDEA: Matrikula egin den data kontuan hartu. Lehenengo eta bigarren puntuetako baldintzak beteta, egoera berean egonez gero, matrikula egindako dataren arabera esleituiko dira bekak.

Oharra: Ikasle bekadunak talderik edukiko ez balu, VITAL Fundazioak eta Gasteizko IKAK beste aukera batzuk eskainiko lizkiokete (bestelako erritmoa, ordutegia...).

Prozesuan edozein gorabehera egongo balitz, VITAL Fundazioak eta Gasteizko IKAK azken erabakia hartzeko ahalmena izango lukete.

### **Ordaintzeko moduak:**

Matrikulazioa euskaltegian egin, hau da, matrikula orria bete eta ikastaroari dagokion diru kopurua ordaindu izanaren agiria euskaltegietako bulegoan eman. Ikastaroaren prezioa kalkulatu eta ordaintzeko, bi aukera:

- 1.- **Dena batera** ordainduz gero, AFAREN diru laguntza eta VITAL Fundazioaren bekaren kopurua deskontatuko dira.
- 2.- **Epeka** ordainduz gero, lehenengo epean VITAL Fundazioaren bekaren kopurua deskontatuko da, eta bigarrean, AFAREN deskontua ezarriko da.